



SARBIDE PRIBILEGIATUA KUDEATZEKO SISTEMA (PAM) ESKURATZEKO ETA LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUA. EUOPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION SUSPERTZE- ETA ERRESILIENTZIA-MEKANISMOAREN FUNTSEKIN FINANTZATUA, ZEHAZKI, 5. OSAGAIAREN «ITSASERTZA ETA UR-BALIABIDEAK ZAINTEA» 3. INBERTSIOAREN «TRANSIZIO DIGITALA URAREN SEKTOREAN» ESPARRUAN. ESPEDIENTE ZK.: 3250

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Pablo Urquiza Arana
4.- Kontratazio Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: SARBIDE PRIBILEGIATUA KUDEATZEKO SISTEMA (PAM) ESKURATZEA ETA LAGUNTZA EMATEA
2.- Bete beharreko premiak Barne-langileak (partzuergoko langileak) zein kanpokoak (kanpoko enpresako langileak) pribilegio handiko sistemetara konektatu behar dira, dela sistema berriak instalatzeko, dela aktiboak konfiguratzeko edo mantentze-lanak egiteko. Kontratu honen bidez, sistemetarako sarbideak babestu nahi dira.
3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Zerbitzu hau ezin da inongo irizpideren arabera banatu. Produktuaren hornidura, konfigurazioa eta mantentze-lanak dira, eta enpresak berak egin behar ditu.
4.- CPV: CPV kodea: 72253200-5 ; 48730000-4 Deskribapena: Sistemei laguntzeko zerbitzuak ; segurtasuneko software-paketeak
5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ Onartzeko baldintzak eta aldatu edo aukeratu daitezkeen elementuak: Ez da aplikatu behar.



B.- KONTRATUAREN XEDEA

6.- Izaera juridikoa:

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)

EHUN ETA BERROGEI MILA (140.000,00 €)
EURO

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: BERREHUN ETA HOGEI MILA EURO (220.000 €)

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Aleko prezioak

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira:

2026. urtea: 92005.21501 PARTIDA ZENBATEKOA 115.000,000 € (BEZik gabe)

2027. urtea: 92005.21501 PARTIDA ZENBATEKOA 10.000,00 € (BEZik gabe)

2028. urtea: 92005.21501 PARTIDA ZENBATEKOA 10.000,00 € (BEZik gabe)

2029. urtea: 92005.21501 PARTIDA ZENBATEKOA 5.000,00 € (BEZik gabe)

5.- Prezioak berrikustea:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☒ BAI ☐ EZ

Funts-mota:

Finantzaketa Europar Batasunaren Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren –Next Generation EU– funtsaren kargura izango da. Funts hori Kontseiluaren 2020ko abenduaren 14ko 2020/2094 Erregelamenduaren (EB) bitartez ezarri zen. Horren bidez, Europar Batasunaren berreskuratze tresna bat ezarri zen COVID-19aren ondorioz sortutako krisiaren berreskuratze-prozesuan laguntzeko eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 EB Erregelamenduaren bidez arautzen da; azken horren bitartez ezartzen da Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa.

Elkarrekin finantzatzeko % % 63,9 (BEZari dagokiona ez ezik)

7.- Ordaintzeko modua: Bazkideak egindako lanetarako erabilitako orduen araberako hileko ziurtagiriak.

8.- Ordainketak kontura: Ez da behar.

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Guztizko iraupena: HOGETA HAMASEI (36) HILABETE

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☐ EZ

3.- Luzapena

☒ BAI ☐ EZ



D.- KONTRATUAREN EPEA

HAMABI (12) HILABETEKO BI (2) LUZAPEN.

4.- Berme-epea: 0

5.- Kontratua betetzeko tokia: BBUPren instalazioak

6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumenak, aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea, kontratuaren batez besteko urteko kopurua halako bat izan beharko du gutxienez (46.666,00 €).

G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Parte hartzen duten enpresek gutxienez ziurtagiri hauek izan beharko dituzte:

- UNE-ISO/IEC 27001:2013, Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema, jarduera hauetarako: Dokumentuen kudeaketaren, lan-fluxuen, aplikazioen integrazioaren eta edukiak kudeatzeko irtenbide espezifikoaren diseinua, garapena, ezarpena eta aholkularitza, edo beste ziurtagiri baliokide bat.
- Hornidura-kateko NIS2 betetzeko, Segurtasun Eskema Nazionalera (SEN) egokitzea eskatzen da. Segurtasun Eskema Nazionala betetzen dela egiaztatzen duen auditoretza independentearen ziurtagiria.
- Enpresak egiaztatu behar du eskainitako produktua sartuta dagoela CCNk argitaratutako STIC Produktuen eta Zerbitzuen Katalogoko (CPSTIC) Produktu Kualifikatu gisa, sarbide pribilegiatuaren kudeaketa izeneko familian (PAM, Privileged Access Management).

Giza baliabideak eta baliabide materiala atxikitzea

Kontratuari lotutako gutxienez hiru teknikarik osatutako talde bat eskainiko da, eta horiek produktuan ziurtagiri teknikoak izango dituzte.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoak:

Kaudimenean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

LANBIDE-GAIKUNTZA

ENPRESA-SAILKAPENA



ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

Eskatzen diren taldea, azpitaldea eta kategoria: [Klikatu hemen testua idazteko.](#)

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen araberrako irizpideen dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Dokumentazio hau zehaztu beharko da:

- ENS ziurtagiria
- Eskaintako zerbitzuaren planteamendua. Baldintza teknikoen pleguko 7. puntu.
- Gizataldea deskribatzea eta haien ezaugarriak egiaztatzea

Gehieneko orrialde-kopurua (alde bakarrean idatzita) 20 izango da, ezaugarri hauekin:

- Tamaina: DIN-A4.
- Letra-mota eta gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm.

Gehieneko orrialde-kopurua zenbatzen denean, aurkibidea 20 orrialdeen barnean zenbatuko da. Azala eta kontrazala ez dira zenbatuko.

Aurreko zenbaketaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko antzeko lanei eta esleitutako taldearen esperientziari buruzko erreferentziak (gauzatze-, ikastaro- eta prestakuntza-ziurtagiriak, esperientzia, CV eta abar) egiaztatzen dituzten agiriak, eta aparteko eranskin batean erantsi beharko da informazio hori.

Eskaintza teknikoa baloratzeko, ez dira kontuan hartuko ezarritako orrialde-mugatik kanpoko eranskin edo edukiak.

“Dokumentuaren puntuak hurrenkerak argi eta txukun jarraituko dio balorazio-irizpideetan azaldutako zerrendari, hurrengo xehetasun eta luzera kontuan hartuta, eta guztira ezin izango dira aurreko paragrafoan aipatutako 40 orrialdeak baino gehiago izan.”

Muga horrek ez du eraginik talde teknikoko kideen curriculum vitaean.
Aurreko baldintzatzailea betetzen ez bada, balorazioa zigortuko da.

ESKAITZA BAZTERTZEKO HUTSEGITE TEKNIKOAK

- AKBK agirian eskatzen den dokumentazioa eskatutako forma eta edukiarekin ez aurkeztea.
- Sistema sartu behar da CCNk argitaratutako STIC Produktuen eta Zerbitzuen Katalogoko (CPSTIC) Produktu Kualifikatu gisa, sarbide pribilegiatuaren kudeaketa izeneko familian (PAM, Privileged Access Management).



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailerak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) Prezioen zerrenda.

Ez dira joan-etorriak ordainduko – 2. itema

110.000 € gehenez instalazioa amaitzean – 1. itema

ITEM	DENOMINACIÓN	Unidades	€/Unidad	€ totales
1	Equipo para la grabación de sesiones, servicio de instalación, licencias requeridas y mantenimiento del fabricante 24x7	1	110.000 máximo	110.000 máximo
2	Mantenimiento Partner por hora de trabajo	300 horas (100 h/año)		

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaileraren profilean adierazitakoa

2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):

3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoki aurkezteko plataforma elektronikokoaren helbidea:

<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidentea:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea.

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Adituen batzordea



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - B_M)}{(B_{\max} - B_M)} \times 2$$

Baldin eta $(B_M + B_{\max}) / 2 < B_i \leq B_{\max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - B_M - B_{\max})}{(B_{\max} - B_M)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

- Memoria teknikoa eta lanak egiteko metodologia-----30 puntu

- Eskaintako osagaien eta beharrezko integrazioen ezagutza-maila
- Lanak egiteko jarraitu beharrezko metodologia. Kontratuaren adierazleak optimizatzeko ekimenak
- Taldeen antolaketa eta koordinazioa.
- Prestasuna

- Kontratuaren esku jarritako giza baliabideak eta horiek plegu honen edukira egokitzea. Lantalde teknikoko kideen CVA. -----20 puntu

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizareratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaille bakarria dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzaille daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzaille daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurriz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzaille edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan gainditzen duten eskaintzak badaude, batezbestekoa kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarria izango da ausarkeria-atalase berria ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkezten badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

eskaintzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailerak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

Adjudikaziodun bihurtzen den erakundeak ez badu betetzen lizitazio honetan ezarritako baldintzaren bat, BBUPk zigorrak ezar diezazkioke erakunde horri, edo kontratua suntsiarazteko eska dezake, honako kasu hauetan:

Epeak ez betetzea:

1. Hedapenaren gehieneko epea ez betetzea.
Zigorrak: Kontratua suntsiaraztea.
2. Gorabehera kritikoetan zerbitzuarekin lotutako gorabeherak konpontzeko denbora ez betetzea.
Zigorrak: Kontratuaren balio zenbatetsiaren % 10, garaiz kanpo konpondutako gorabeheren % 10 bakoitzeko.

Kontratua suntsiaraztea: Aurreko zigorrak batera hartuta kontratuaren balio zenbatetsiaren % 10era iristen direnean, BBUPk kontratua eten ahal izango du.

3. Baldintza teknikoen pleguaren bilakaeraren edo egokitzapenaren mantentze-lanekin lotutako aldaketak ezartzeko gehieneko epea ez betetzea.

Zigorrak: kontratuaren balio zenbatetsiaren % 0,5 atzeratutako aste bakoitzeko.

Kontratuaren xede den zerbitzua gaizki betetzea

1. BBUPren iritziz behar bezala zehaztuta ez dauden edo erabiltzaileen eskakizunak betetzen ez dituzten analisi eta diseinu teknikoko dokumentuak ematea.
Zigorrak: kontratuaren balio zenbatetsiaren % 1, dokumentazio-akatsak konpondu gabe igarotzen den aste bakoitzeko.
2. BBUPren iritziz behar beste egiaztatu ez diren garapenak entregatzea.
Zigorrak: Kontratuaren balio zenbatetsiaren % 1, garapenak behar beste egiaztatu gabe igarotzen den aste bakoitzeko.
3. Informazioa edo datuak galtzea, eta kontratuak irauten duen bitartean landutako proiektuetan gordetako informazio sentikorrerako sarbidea urratzea.
Kontratua suntsiaraztea: BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.
4. Kontratua indarrean dagoen bitartean eskuratzen den informazioari buruzko konfidentzialtasun-betebeharra ez betetzea.
Kontratua suntsiaraztea: BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.



M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kargura finantzatutako kontratuen kasuan, aurreikusi gabeko aldaketak egiteko aukera egongo da, baldin eta zehaztutako baldintzak aldatzea beharrezkoa bada eta araudi-aldaketak gertatu badira eta horien ondorioz planaren ezaugarriak/baldintzak ezberdinak badira.

Kontratua aldatzeko arrazoa izango da agintaritza arduradunak agintzea neurri zuzentzaileak ezarri behar direla DNSHri eta etiketatze berdeari eta digitalari dagokienez.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasierako ekarpenaren betebeharra
☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☒ BAI
☐ EZ

R.- BERRESKURATZE-, ERALDAKETA-, ETA ERRESILIENTZIA- PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA

OSAGAIA:

Espainiako Gobernuaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak lau helburu handi ditu (Espainia berdea, Espainia digitala, Espainia genero-arrakalarik gabe eta Espainia kohesionatua eta inklusiboa) eta hamar palanka-politika hauek ere baditu:

- I. Hiri- eta landa-agenda eta despopulazioaren aurkako borroka.
- II. Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak.
- III. Energia-trantsizio bidezkoa eta inklusiboa.
- IV. XXI. menderako administrazioa.



V. Industria-sarearen eta ETEen modernizazioa eta digitalizazioa, turismoa berreskuratzea eta Espainia nazio ekintzaile gisa sustatzea.
VI. Zientziaren eta berrikuntzaren aldeko hitzarmena. Osasunaren sistema nazionalaren trebetasunak indartzea.
VII. Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta trebetasunak garatzea.
VIII. Zaintzen eta enplegu-politiken ekonomia berria.
IX. Kulturaren eta kirolaren industria sustatzea.
X. Zerga-sistema modernizatzea hazkunde inklusibo eta jasangarrirako.

Aldi berean, palanka-politika horiek 30 osagaitan zehazten dira. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren **5. osagaiaren barruan (Itsasertza eta ur-baliabideak zaintzea) 3. inbertsioa dago («Eraldaketa digitala uraren sektorean»)**. Lizitazio honen edukia osagai horren barruan dago; kontratistak/azpikontratatistak hura ezagutzen duela adierazten du, eta bere jardun-eremuan hura betetzea hitzematen du.

Horretarako, hari lotutako helburuak lortzen lagunduko du Europar eta Espainiar suspertze- eta erresilientzia-mekanismoaren eta Suspertze-planaren araudiarekin bat etorritik. Zehazki, oinarri hauekin egingo diren jarduketak esparruak hauek izan ahalko dira:

C5.I3a azpineurria, baliabide hidrikoak hobeto ezagutzeari eta erabiltzeari buruzkoa.

Ura eta energia erabiltzean efizientzia sustatzeko erarik onena uraren hiri-zikloaren kudeaketa osoa da, eta digitalizazioa, horrenbestez, uraren hiri-zikloa kudeaketaren eraginkortasun orokorrean hobetzeko zeharkako neurria da, eta osatu eta lagundu egiten du, BBEP diseinatuta dagoen bezala, «Baliabide hidrikoen ezagutza eta erabilera hobetzeko eta prezipitazioak eta beste datu meteorologiko batzuk erregistratzeko tresnak abian jartzea» izeneko 79. CID helburua betetzen, 91/271/EEE Zuzentaraua betetzea bermatzeko eta energia-efizientziaren irizpideak betetzeko, edo ura banatzeko sistemetan efizientzia hobetzeko eta ur-galerak murrizteko.

Inbertsioak Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren «C5.I3.» atalaren barne daudenez, egingo diren jarduketak «040: Ura kudeatzea eta baliabide hidrikoak kontserbatzea (horren barne daude ibai-arroen kudeaketa, klima-aldaketara egokitzeko neurri espezifikoak, berrerabilpena eta jarioak murriztea)» esku-hartze eremuan egongo dira, zehazki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 EB Erregelamenduaren VI. eranskinean (Klimaren aldeko ekintzarako jarraipen-metodologia).

Deialdia egin duen erakundeak deialdiarekin lotutako mugari horiek (lorpen kualitatiboak) eta helburu kuantitatiboak (lorpen kuantitatiboak) bete direla egiaztatu ahal izateko, kontratistak/azpikontratatistak nahitaez aurkeztu beharko ditu dagozkion epeetan eta forman jarraipen-txostenak. Jarraipen-txosten horiek irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan (BBEP kudeatzeko sistema konfiguratzeko duena) eta irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan jasota daude. Azken horren bitartez ezartzen da Espainiako, autonomia-erkidegoko eta tokiko sektore publikoko erakundeek eman beharreko informazioa, BEEPren osagaien neurrien mugariak eta helburuak betetzen direnaren eta aurrekontua eta kontabilitatea betearazten direnaren jarraipena egite aldera.



	Modu berean, urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduari lotuta egongo da, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana betetzen duten prozeduretako interes-gatazken arriskua sistematikoki analizatzeari buruzkoa. Jarraipen-txosten horiek aurkezten ez badira edo osatu gabe, epez kanpo edo pleguaren zehaztapenak errespetatu gabe entregatzen badira, urraketatzat joko dira.
JARDUKETA:	ESEPE 1- URDATA- A26. Zibersegurtasun-plana hedatzea
Kontratazio-organoaren iruzurren aurkako neurrien plana kontsultatzeko esteka	https://www.consortiodeaguas.eus/wp-content/uploads/2023/10/PLAN-MEDIDAS-ANTIFRAUDE_2024.pdf

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

Atxikitako teknikariak baldintza tekniko berezien pleguan zehaztutakoaren arabera soilik ordezkatu ahal izango dira.
BBUPren sistemekiko konexioa
Ez da urruneko konexiorik onartuko soluzioa hedatzeko.